

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixente Lizaso Itxaso

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1931-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Gurasoak Albizturdik etorri eta Urnietako Latxe baserrian jarri ziren bizitzen. Sei seme alabaren artean laugarrena zen Bixente. Hamahiru urte bete zituen arte Hernaniko Arriatsuko eskolan ibili zen. Hamabost urte zituela igeltsero hasi zen eta berrogeita hamar urte horretan eman zituen. Gerra garaian jaiotetxea bota zieten Santa Barbaratik botatako kanoikadekin eta etxea berreraiki behar izan zuen aitak. Hogeita hamahiru urte zituela ezkondu zen eta Urnietan bizi izan da geroztik.

Zintak

URN-029

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-23
- **Iraupena:** 116 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Familia Albizturretik Urnietara

- **Erref:** URN-029/001
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gurasoak Albizturkoak ditu. Ezkondu eta maizter jarri ziren Albizturren, eta gero nagusiak behar zuela etxea eta bidali egin zituen. Urnietara etorri, etxea erosi eta familia aurrera atera zuten. Sei anai-arreba izan dira, bi Albizturren jaiokak eta besteak, Bixente tartean, Urnietan.</p>

2. "Emakume bat gutxiegi eta bi gehiegi baserrirako"

- **Erref:** URN-029/003
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:04:59. **Bukatu:** 00:05:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amona baztertu samartuta omen zegoen etxean. Esaerak dioen bezala, "emakume bat gutxiegi eta bi gehiegi baserrirako". Ama oso etxekoandrea omen zen.</p>

3. Aita kontuak buruz ateratzen bikaina

- **Erref:** URN-029/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amona bertsotan ere aritzen zen. Hari ikasi zizkion Bixentek hainbat bertso eta kantu. Ez amonak eta ez aitak ez zuten eskolarik. Baina aita oso ona zen kontuak buruz ateratzen.</p>

4. Lakaria eta gaitzerua, neurri-ontziak

- **Erref:** URN-029/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Pisu formalik ez zen etxean, eta lakaria erabiltzen zuten neurgailu gisa babarrunentzako eta. Bazen neurtzeko beste ontzi bat, gaitzerua, baina ez du haren berririk. Etxean horrelako gauza gutxi zuten, kanpotik etorri baitziren eta etxea hutsa aurkitu baitzuten. Sagar-neurgailua ere bazen: "hektolitua" (sic). Txapazko ontzi handi bat zen.</p>

5. Sagardoa egiten

- **Erref:** URN-029/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiten zuten, baina kanpoan, Argindegi baserrian normalean, etxean ez zuten dolarerik eta. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du: makinan txikitu, estutu... Lexiko interesgarria: "patsa", "ubik" (?), patsola, "ukatxua", "balenka" (palanka), "txabeta"... Lau edo bost egunez jarduten zuten sagardogintzan.

6. Jende asko sagardotegietan

- **Erref:** URN-029/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Onduan txotxean saltzen zen sagardoa. Baso bakoitza sos bat (5 zentimo). Sagardotegietan jende asko ibiltzen zen. Sagardo edale handi bati buruzkoak.

7. Hernaniko upel famatua, hasi orduko bukatu

- **Erref:** URN-029/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Zenbait baserri upela egin eta saltzen jartzen zuen. Egurrezko kanila izaten zuen upelak eta handik betetzen zen basoa. Hernanin omen dago marka jarria: larunbatean upela hasi eta astelehen gauerako bukatu.

8. Arriatxuko eskola fama handikoa

- **Erref:** URN-029/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Arriatxuko eskolara joan zen. Frontoi txiki bat ere ba omen da Arriatxun. Makina bat aztarrika egin ei zuten pilotan. Fama handia izan zuen Arriatxuko eskolak; urrutiko haurrak ere hara joaten ziren. Maistrak euskaldunak ziren baina hitzik ere ez zen egiten euskaraz.

Transkripzioa

-Eskolara esan dezu Arriatxura?

-Bai; jakingo dezu nun don Arriatxuko eskola.

-Hori ere aittu det baiña ez dakit ze etxe.

-Ez? Etxia ez, eskola da.

-Nun dago Arriatxuko eskola?

-Arriatxu baserriya-tik hauntza, Itxaspuru aldea. Itxaspuru-ta, sagardotegiya do oain, ta hantxe do. Frontoi ttiki bat'e badu. Makiña bat aztarrika in gendun han'e pelotan. Bueno! Bide pixka bat zan, baiño ordun Arriatzuko eskolak fama izugarriya zun. Pentsatu hemen Agarrekua, Urnitako apeaderuan ondoko baserrikuak'e harea juten zien eskolaa, e, Urnietaa etortzeko partez. Eta [Goiburutakuak'e] bai ta. Izugarrizko fama zun. Maixtra onak, bi maixtra zien, Dionixi ta Ixabel. Ta oso, gerratian gaizki ibillik. Jo.., Ixabel hua behintzat. Dionixi. Ez, Ixabel.

-Euskeraz erakusten zuen?

-Keba! Ezta hitzik'e euskeraz. Euskaldunak zien, e, baiño euskeraz ordun? Ezta...

9. Laborantza tresnak

- **Erref:** URN-029/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Orain lan erraza da baserrikoa, dena makinekin egiten baita. Lehengo tresnak: Kirrimarroa lurra harrotzeko, goldea iraultzeko eta lastra zokorrak txikitzeko. Kirrimarroa nolakoa den. Behiak tiratuta erabiltzen zen etxean.</p>

10. Goldea eta harria

- **Erref:** URN-029/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Golde mota bakarra zen bere denboran. Lehenago ba omen zen beste bat alde batera bakarrik lan egiten zuena. Harria lurra txikitzeko erabiltzen zen. Gero lastra sortu zen eta hark hobeto txikitzen zuen.</p>

11. Hesia, alperra eta zokor-mazoa

- **Erref:** URN-029/016
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Aita-zenak berak egin zuen hesia hurritz-makilekin. Zokorrak apurtzeko erabiltzen zen. Geratzen zirenak mazoaz desegiten ziren. Gustura jarduten zuten zokor-mazoaz. Ura igotzeko sistema bitxi baten berri ematen du tartean. Laiaz artoa nola aletzen zuten kontatzen du Bixentek.</p>

12. Lursail gutxiko baserria

- **Erref:** URN-029/018
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Artoa hartzen zuten, eta babarruna ere asko, lur ona baitzen horretarako. Hala ere, lursail gutxi zuen baserriak eta beste baserri batzuetako belazeak erabiltzen zituzten. Bi sagasti, bi soro eta bi belaze zituen baserriak.</p>

13. Artoa eta babarruna ereiten

- **Erref:** URN-029/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Santa Kurutzetarako (maiatzak 3) ereiten ziren artoa eta babarruna. Babarrunarentzat ilbehera omen da onena. Lurrak giro onean egon behar du. Lurra lehor zenean, artalea beratzen eduki eta erein ohi zuten, emaitza onarekin. Erein eta zortzi bat egunera ernetzen omen dira biak.</p>

14. Artoa jorratzen

- **Erref:** URN-029/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:16. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Markak eginda ereiten zen artoa, gero astoak tiratutako besarea ilara artetik pasatu ahal izateko. Jorraketa aitzurrez amaitzen zen. Bera mutikoa zela, "trabesa" izeneko arotz-erreminta batez bidaltzen zuen aitak artajorrara.</p>

15. Gerra ostean garia erein eta etxean eho

- **Erref:** URN-029/021
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gerra ostean, gosetea zela eta, garia erein izan zuten. Esku-erota txiki batez ehotzen zuten, ogia egin ahal izateko. Errazionamenduko ogiak ormigoiz egindakoa omen zirudien. Txerria hiltzea ere debekatuta zegoen. Olorik ere ez zen. Bera mutikoa zen gerra hasi zenean.</p>

16. Gerra hasieran, baserria bonbardatu

- **Erref:** URN-029/022
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Etxetik irteteko abisua jaso zuten gerra heldu zenean, bonbardatu egin behar zutela eta. Basoan ezkutatu ziren eta handik ikusi zuten baserria Oriamenditik eta Santa Barbaratik kanoiz bonbardatzen. Ez daki ondo zein bandotakoak ziren batzuk eta besteak, baina beren etxe ondoko frontean zeudenak erreketek zirela badaki. Etxeko oilo eta oilasko guztiak jan zizkieten.</p>

17. Baserria guztiz txikituta kanoikadekin

- **Erref:** URN-029/024
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:39:56. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Bixenteren baserria txikituta geratu zen kanoikadekin. Berriz eraiki zuten gurasoek. Bitartean, Gurutzeaga eta Zugatzeta baserrietan egon ziren. Baserri bateko alaba bat hil eta beste batek begia galdu zuen. Soldadu bat ere hil zen euren etxe ondoan. Astoak ere azken berdina izan zuen.</p>

18. Etxetik alde egin bonben beldurrez

- **Erref:** URN-029/025
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Abarketak gerrian lotuta irten zen Bixente mutikoa etxetik. Etxetik irten eta laster hasi zen bonbardaketa. Argindegiko mutilak eman zien abisua. Gero gerran hil omen zen.</p>

19. Espioia zelakoan, mutila hil

- **Erref:** URN-029/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Eulako mutila soldadu zegoen eta etxera bisitan joatea pentsatu zuen. Beste bandokoekin bidean topo egin, eta fusilatu egin zuten espioia zelakoan.</p>

20. Maistrari ilea moztu

- **Erref:** URN-029/027
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:45:38. **Bukatu:** 00:47:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Urnietako maistra Aretxabaletakoa zen. Ilea moztuta agertu zen gerra ostean eskolan, kartzelan egon eta gero. Horrelako kasu asko izan zen.</p>

21. Urarekin arrautzak frijitzen

- **Erref:** URN-029/029
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:49:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gerra ondorena oso gogorra izan zen. Gosea. Oliorik ez arrautzak frijitzeko. Urarekin aproba egin zuen amonak. Goiz-garia ereiten zuten eta haren ondoan artoa: horrela bi uzta hartzen zituzten.</p>

22. Alegiara eta Goizuetara artoa ehotzera

- **Erref:** URN-029/030
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:49:24. **Bukatu:** 00:51:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errotak itxita zeuden eta ezin artorik eho. Ama Alegiara joan zen behin ehotzera eta itzultzerakoan trenean karabineroek kendu egin zioten irina. Goizuetara ere joaten ziren batzuk astoarekin. Astoak sen izugarria du: behin pasatako bidea gogoan izaten du.</p>

23. Amak beste familia bateko bi ume bizkiri bularra eman

- **Erref:** URN-029/031
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Amari umea hil zitzaion jaiokeran, eta orduan bularra ezinbestean eman behar zenez, esnerik ez zuen ama baten bi mutil bizki ekarri zituzten baserrira bularra emateko. Mutil galantak hazi omen ziren.</p>

24. Ergobira astoarekin joan zeneko estutasunak

- **Erref:** URN-029/033
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:53:56. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Bixente, zazpi urte zituela, astoarekin joan zen Ergobira babarruna eramatera. Hartu behar zuenak seinalea egin zion eskuarekin, baina karabineroa zela pentsatuta ihesari eman zion Bixentek.</p>

25. Donostian esnea saltzen

- **Erref:** URN-029/035
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:58:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Etxeko abereak: txerriak, behiak, astoa... Donostiara joaten ziren esnea saltzera. Ama bezeroak konplitu ezinik ibiltzen zen, eta ez zuen bakerik izaten beste behi bat erosi arte. Bixente ere joaten zen esnea saltzera igandetan. Gogoan ditu esne-bezero batzuen izenak. Trenean ibiltzen ziren.</p>

26. Urnietatik Donostiara saltzaile pila

- **Erref:** URN-029/036
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Saltzaile eta salkin asko joaten zen Urnietatik Donostiara trenez. Donostiako geltokitik esku-gurdiz edo ahal zen bezala garraiatzen zen jeneroa. Bera lau marmitarekin joaten zen. Txantxilarekin (litro erdiko ontzia) egiten zen banaketa.</p>

27. Esne txarra eramanez gero, isuna

- **Erref:** URN-029/037
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Kimikoak analizatzen zuen esnea, eta ez bazen bere gradutara heltzen, isuna botatzen zien. Kimiko bat omen zen baserriarren areriorik handiena. Urnietako esne saltzaile batekin ezkondu zen.</p>

28. Neskek mutillei korrika irabazi

- **Erref:** URN-029/039
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:04:03. **Bukatu:** 01:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Korrika egitea-eta horrelakoak ziren euren umetako jolasak. Baziren oso neska bizkorrak. Bi neskek bi mutilen aurka egin zuten korrika-saioa Urnietan, eta neskek irabazi.</p>

29. Kaniketan neska bati kanika guztiak irabazi

- **Erref:** URN-029/040
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:05:15. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Kaniketan ere egiten zuten. Berak eskua luzea zuen, eta gogoan du nola irabazi zizkion kanika guztiak neska adiskide bati.</p>

30. Pilotan jo ta ke gurasoen ezkutuan

- **Erref:** URN-029/041
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:06:05. **Bukatu:** 01:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Pilotan jokatzea asko gustatzen zitzaion. Gaixotu egin zen pleurarekin eta medikuak debekatu egin zion jokatzea. Hala ere ez zion kasurik egin eta saio ederrak egiten zituen. Arrebak laguntzen zion gurasoak ez konturatzen.</p>

31. Harizko pilotak egiten

- **Erref:** URN-029/042
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:08:38. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Berak egiten zituen pilotak. Kizkia topatzen bazuen kizkiaz eta bestela kortxoaz. Hariarekin bildu, josi eta listo. Harizko pilotak ziren. Larrua ipintzea konplikatu zen.</p>

32. Sugeak habiako txorikumeak jan

- **Erref:** URN-029/043
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Habia bila ere ibiltzen zen. Behin, zozokumeak hartzera joan zen batean, txapela bota zuen habiara eta sugea azaldu zitzaion. Aurrea hartu zion, ordurako janda zituen ia txorikume guztiak. Ikusita dago sugea zapoa irensten.</p>

33. Begiko neskak eskutik kosk

- **Erref:** URN-029/045
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:12:22. **Bukatu:** 01:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Bazuen begiko neska bat eskola-garaian. Behin, eskurtsio batetik bueltan, etxera lagundu zion. Bidean eskutik heltzen hasi eta kosk egin zion atzamarrean. Orduan amaitu omen ziren adiskidetasunak.</p>

34. Oialumeko erromeriara neskatara

- **Erref:** URN-029/046
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:13:30. **Bukatu:** 01:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Oialumera joaten ziren erromeriara. Han egiten zuten neskatan. Leku askotako jendea biltzen zen. Amarako Itxua izan ohi zen soinu-jolea.</p>

35. Bolatokia eta bola etxean egin zueneko

- **Erref:** URN-029/049
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:20:41. **Bukatu:** 01:22:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Bolaria izan da Bixente. Mutikoa zelarik bolatokia eta bola egin zituen etxean. Gero, urtetan ez zuen jokatu. Urteak igaro ondoren, herrian egin zuten bolatokia. Herriko kopa irabazi zuen eta zaletu egin zen ostera.</p>

Transkripzioa

-Etxian ein nun bolatokia neonek mutil koskorra nitzala, e. Neonek bolatokia ein eta bola're bai neonek in nun. Erremintik ez zan ordun ezerren zeik. Ni harrittuta eoten naiz. Sagar-gerrri bat hartu ta oso moztu gabe borobildu ahal nun guziya aixkoakin bi aldetan zea utzita, erdiko zea moztu gabe utzi bi aldetan bi kabilla bezela, eta raspakin hartu. Raspa erderaz "escofina" esaten diyue, guk raspa ikasi gendun; eta harekin hartu ta raka-raka-raka, daratuluakin zuluua ein eta eskuzuluua in ta bola in. Brillak'e bai nolabaittekuak, eta bola tokiya in nun neonek bola ta guzti. Geo urte askuan bate ibilli gabe egondu nitzan. Geo hemen bolatokiya in bihar zala ta hortxe zineko zer horren azpikaldian ein gendun, aittu giñen behintzat, auzolanian danak eta. In gendun. Eta geo konkursua jarri bihar zala. Jarri ta hasi eta neonek irabazi aurreneko herriko kopa. Herrikua bakarrik, e, zeakua ez, herrikua. Joño! Ordun ostera hartu nun indarra, ta aurea!

36. "Campeón de España" boletan

- **Erref:** URN-029/050
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:22:11. **Bukatu:** 01:23:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Zubietako txapelketa ere bereganatu zuen. Hiru bolatokitan jokatu ziren "Campeonato de España"ko saioak: Ategorrietan, Legazpin eta Añorgan. Txapeldun geratu zen.</p>

37. Bola-joko arauak

- **Erref:** URN-029/051
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:23:46. **Bukatu:** 01:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Bola-jokoaren arauak azaltzen ditu. Bederatzi "brilla" (txirlo) izaten dira bota beharrekoak. "Txaparro"k "nulo" esan nahi du. Erdiko brilla txikiari "amona" esaten zaio.</p>

38. Trabesa boletan

- **Erref:** URN-029/052
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:25:35. **Bukatu:** 01:26:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Apustuak edo trabesak nola ziren azaltzen du. "Bost par sei baietz" eta horrelako esaldiak zer esan nahi duten.</p>

39. Matxain, artista tokan

- **Erref:** URN-029/053
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:26:14. **Bukatu:** 01:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Matxain bikaina zen toka jokoan. Behin apustua egin zuen: tokaren aurrean hesia ipinita, jo beharreko burdina ikusten ez zuela, baietz jo. Bideratzaile baten laguntzaz, danba-danba jotzen zuen.</p>

40. Mutikotan egin zuen bolatokia

- **Erref:** URN-029/055
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:28:10. **Bukatu:** 01:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Oraindik harritu egiten da mutikoa zelarik egin zuen bolatokiarekin oroituta. Brilak pinuzkoak izango zirela dio, torneatu gabekoak, noski. Anai zaharrenaren aurka jokatu ohi zuen.</p>

41. Argindegin brilak ipintzen

- **Erref:** URN-029/056
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:30:00. **Bukatu:** 01:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Argindegi auzoko bolatokian brilak jartzen ibiltzen zen mutikotan; gustura asko gainera, diru apur bat ematen baitzioten. Txapelketa bat egin zuten bolatoki horretan, baina bera artean txikiegia zen brilak jartzeko. Urnieta aldeko bolatoki batzuk izendatzen ditu, zenbait bolarirekin batera.</p>

42. Ilobak aitonari laguntzeko sena

- **Erref:** URN-029/058
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:32:30. **Bukatu:** 01:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>Iloba txikiarekin oso ondo konpontzen da. Aitona zaintzeko sena omen du. Neskatila atzeratu batek bere aitonarekin izandako jarrera lagunkoia deskribatzen du.</p>

43. "Ia igualtsuak dirade zozua eta belia" bertsoa

- **Erref:** URN-029/060
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:34:56. **Bukatu:** 01:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>"Ia igualtsuak dirade zozua eta belia" hasten den bertsoa kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Iya igualtsuak dirade
zozua eta belia
modu horretan jarriyak gaude
baserri eta kalia
iñok lanikan egin nahi ez du
ta hua aritu eskalia
nahiago nuke alper guziyak
desterratuko balia.

44. "Esan zidazun nekazaritzan ez zenduela etsiko" bertsoa

- **Erref:** URN-029/062
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:37:28. **Bukatu:** 01:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>"Esan zidazun nekazaritzan ez zenduela etsiko" hasten den bertsoa.</p>

Transkripzioa

Esan zidazun nekazaritzan
ez zenduela etsiko
denda koxkor bat ipiñi eta
ondo giñala biziko
zazpi ministro bihartuta ´re
ez ninduzula utziko
kariño piña hartu zidazun
baiñan denbora gutxiko.

45. Hamasei urte arte gutxitan kalera

- **Erref:** URN-029/065
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:40:38. **Bukatu:** 01:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Jai arratsaldetan bezperetara jaisten ziren. Hura ona izaten zen, gero jolaserako aukera zegoelako. Baina bera oso gutxi jaitsi omen zen hamasei urte arte herrira. Bere etxean, Latxen, biltzen ziren ingurukoak eta han jostatzen ziren.</p>

46. Familia eta jolas-giro zoragarria bere baserrian

- **Erref:** URN-029/067
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:41:41. **Bukatu:** 01:43:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Elkartasun giro alaia omen zegoen bere etxe inguruan txikitan. Ume denak beren etxera etortzen ziren jolasera. Umetako jolas-lagun baten hitzak garai hartako giroaz. Aitak igande arratsaldero egiten zuen etxe inguruko itzulua.</p>

47. Euskarak orain indar handiagoa lehenago baino

- **Erref:** URN-029/069
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:46:30. **Bukatu:** 01:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>"Nere bizi-posturako hizkuntza" da euskara, dio. Orain indar handiagoa omen du lehenago baino.</p>

Transkripzioa

-Bixente, bukatzeko, euskera ze izan da zuretzako?

-Bueno, nee hizkuntza. Nik erderaz hitz eitten det baiño kostata ta gaizki, gaiñea. Ondo ez. Nahiz eskolan erderaz ibilli, beti euskeraz hitz ein deu etxian eta laun artian eta, gaiñentzian danian beti euskeraz. Neetzako izandu da nee bizi-posturako hizkuntza.

-Euskerak bizkortzeko edo trabatzeko izan al dittu kontrarioak eta aldekoak zure gazte garaian eta?

-Bueno!

-Kontrarioak ala aldekoak zer gehiago?

-Asko, bueno! Euskerak indarra oain haundiya daka, e, gue gaztetako aldian, e. Bueno! Ordun euskerak ez zun oain bezelako indarrak eta gutxioik'e. Joño! Asko indartu da. Baiño oaindio gehixio nahi genduke. Ez dakigu.

48. Euskara batuak euskara nahastu

- **Erref:** URN-029/070
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:47:52. **Bukatu:** 01:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batuak asko nahastu du euskara. Xabier Euzkitzeri kritika "hamazortzi" esaten duelako. Inoiz ilobak zuzentzen dio, eta isildu egin behar.

49. Astigarragako euskara eta Urnietakoa oso ezberdinak

- **Erref:** URN-029/071
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:50:15. **Bukatu:** 01:52:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Astigarraga eta Urnietako euskarak oso desberdinak omen dira. Oso makal hitz egiten dute Astigarragan. Oiartzun aldekoa ere desberdina. Hizketari erreparatuta hartzen dio tankera jendeari nongoa den. Tolosa aldekoa ere ezberdina omen, Goierriko ukitua dauka. Villabonako euskara garbiagoa iruditzen zaio Tolosakoa baino.</p>

50. Hika, zuka eta berorika, bakoitza bere lekuan

- **Erref:** URN-029/072
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:52:48. **Bukatu:** 01:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Berak hika egiten du ahal duen guztietan. Lagun batekin gertatutako kasua: zuka egiten hasi zaio oraintsu eta Bixenteri ez zaio batere gustatzen. Zukak errespetua adierazten du. Ikusi izan du semea aitari hika egiten, baina lotsagarri samarra iruditzen zaio. Gurasoei berorika egiten zitzaien. Berak ez zuen horrekin jarraitu seme-alabekin, baina arreba batek bai. Apaizari ere berorika.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com